

Aprobetxatu, uda da

Maddi AIESTARAN
IPARRAGIRRE

Udan, hondartzara joan behar da ixa aldiz. Instagramen bista-bistan jarri behar da unean uneko kokalekua: Mostar, Theth, Split, Agautz, Menorca, Kanbodia, Marrakex, Krabi, Uztarrotz, Albufeira... Parranda egin behar da, herrietako festak ezagutu, gaupasa egin. Gertuen duzun hiriburuko jaietara joan behar da. Kuadrillakoekin gaugiroa aprobetxatu behar da afalondoren. Bikotekidearekin plan asko egin behar dira, ohi baino gehiagotan egon. Lana egin beharra tokatu bazaizu –gaixoa zu–, pote bat hartu behar da lagunekin lanetik atera bezain pronto. Mendiko planak egin behar dira. Izozki bat jan behar da

tarteka. Izarrei begira egotea gustatzen zaizula sinetsi behar da, eta sinetsarazi. Argazki asko egin behar dira. Sarri-sarri depilatu behar da. Ligatzen saiatu behar da. Familiakoekin denbora pasatu behar da. Desodorantea eman behar da, ahaztu gabe. Jendearekin egon behar da beti. Irakurri egin behar da, liburu bat-edo behintzat. Kafesneak hartu behar dira izotzarekin. Dirua xahutu behar da. Ahalik eta denbora gutxien igaro behar da etxean. Bero handiko egunetan goizean goiz jaiki behar da, pertsiana denak ixteko. Entsalada jan behar da zer bazkaldu ez dakizunean. Aspaldiko lagunak bisitatu behar dira. Gauzak egin behar dira oro har, etengabe eta une oro.

Denoi gustatzen zaigu uda. Gustatzen ez bazaizu ez dut ulertzen zergatik. Denbora dago guk nahi duguna egiteko, bakoitzak hautatzen du zer egin nahi duen, gauza mordoa egin daitezke. Mundu guztiak egin nahi ditu planak eta planak eta planak.

Udan, bost minutu tardatzen baditut erabakitzen siesta ondoren ohea egin beharko ote nukeen edo jada total ez, zera bat urduri jartzen zait sabelean, geldi nagoelako. Sumatzen dut zerbaitek tira nahi didala egin mahukatik eta eraman nahi nauela zerbait egitera. Gauza asko daude hor nonbait egiteko. Ezin da denborarik galdu maindireei begira. Aprobetxatu, uda da. •

Eskatzen hasita

Joxean AGIRRE

Gaztelugatxera igo eta santuari begira desio bat eskatzeko hiru aldiz kanpaiaren sokari tiratzen nion bitartean ohartu nintzen zahartzaroan horiek lausotu egiten direla eta, bat eta bakarra eskatu beharrean, nahas-mahas bat, pack bat, eskatu nion, seguru asko bere katalogoan ere ez zeukana.

Irudikatzen nuen gisako zahartzaroa dut. Ilusioak bai, baina anbizio izugarriarik gabeko tipo bat izango nintzela aurreikusten nuen, gauza txikiekin gozatzekiena. Hori bai, itsasoari begiratzen zion etxe batean ikusten nuen neure burua eta horretan huts egin dut. Neure gelako leihoaren kontra liburuz betetako mahai bat jartzea nuen buruan, irakurtzen ari nintzela, hamar orrialdetatik behin edo, begirada jaso eta urdin urrunari begira atseden hartzeko.

Ez da hala izan. Hurrengoan Gaztelugatxera igotzen naizenean, desio hori agertuko diot santuari, baina honek berandu samar nabilela erantzungo dit edo etxebizitzaren espekulazioa aipatuko dit aitzakia gisa.

Hiru kanpai hots jo eta behera gendotzela ohartu nintzen, halaber, zenbat aldiz agertzen den euskal ohitura eta usadio zaharretan hiru zenbakia. San Juan Bataiatzaileak berak ere hiru pausotan egin zuen ermitarainoko bidea: oin marka bat utzi zuen Bermeoko San Juan atean eta beste bi, gora garamatzaten harmailetan. Azken bi oinatz horiek zapaldu genituen, beraz, ilobak sinesmen handietan hezi ezin ditugunez, txikietan hezten saiatzearren edo, eta santuaren jauzi hirukoitzak urrezko domina bat merezi zuela komentatu genuen.

Baina ez hor bakarrik, Urkiolako harriari hiru itzuli ematen zizkioten neskek senargaia aurkitzeko eta Markinako Arretxinagan ere hirutan igarotzen ziren haitzen azpitik emakumeak haurdun geratzeko, beste bi adibide aipatzearren.

Kanpaiak jotzen ari ginen bitartean bertako zaindariak kontatu zigun hotsak txoriak uxatu egiten ote dituen eta ni kolpe arinak ematen saiatu nintzen. Txoriak aipatu genituenez, gogoratu nintzen badaudela txori batzuk, txantxangorria esaterako, zuhaitz adar batean hiru salto txiki eman, beste adar batera joan eta hiru txorrotxio kantatzen dituztenak.

Adina bera ere hirukoitza omen. Bizitza da bakarra eta, poeta txar batek esango lukeen bezala, hiru txorrotxio kantatzeko denbora ematen digu ozta-ozta, baina denok dakigu poetak gauzak esajeratu zaleak direla. •